



Esp. kodea: 2025DPRE0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Alkatearen memoria

Alkatearen Memoria — 2026ko Aurrekontuen Proiektua

Aurkezten dugun 2026ko ekitaldirako aurrekontua, azken urteetan izan dugun proiektu ausartenetako bat da zalantzarik gabe. Dokumentu hau ez da izapide administratibo hutsa, ezta diru-sarreraren eta gastuen zerrenda soil bat ere. 2026ko aurrekontu proiektu hau gure udalerrriaren etorkizuna eraldatzeko borondatez sortutako proiektu baten isla da, gure herritarren beharrei erantzuteko helburu argiarekin.

Udal gobernu honek ardura hartu zuenean, programa argi, konprometitu eta errealista batekin egin zuen. Programa hura ez zen promesen bilduma bat, baizik eta, gure udalerriko bizi-kalitatea hobetzeko, zerbitzu publikoak indartzeko, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta hiri jasangarriago, inklusiboago eta modernoago bat eraikitze bide-orri zehatza. Ordutik hona, etengabe aritu gara lanean: zehaztasunez planifikatzen, udal-teknikariekin, sail ezberdinekin eta gizarte-eragileekin elkarlanean, proposamen horiek proiektu erreal, bideragarri eta jasangarritan bihurtzeko.

Lan planifikatzaile eta diseinu-prozesu luze baten ondoren, orain gauzatzeko garaia iritsi da. Hori dela eta, 2026ko aurrekontuak gauzatze fase erabakigarria islatzen du. Aurrekontu ausarta da, eta hala behar du izan, gure aurrean ditugun erronkak ere handiak direlako: gure azpiegiturak hobetzea, gizarte-arreta indartzea, tokiko merkataritza biziberritzea, enpresa eta ekintzaileei laguntzea, administrazioa modernizatzea eta herri atseginago eta hobeago bat sustatzea.

Badakigu ekimen horiek gauzatzeko zorpetzea beharrezkoa izango dela. Udalak mailegu bat eskatu beharko du aurreikusitako inbertsioen zati bat finantzatzeko. Erabaki hori ez da arinkeriaz hartu, baizik eta arduraz eta konbentzimenduz. Hazteko eta ongizatean inbertitzeko zorpetzea bidezkoa eta beharrezkoa dela uste dugu. Zorra, testuinguru honetan, ez da zama bat, baizik eta aurrerabiderako tresna bat.

Udala, zerga, tasa eta abarren bidez ez dago baliabideak piltzeko, herritarren zerbitzura jartzeko baizik. Gure betebeharra da kudeaketa zuhurra egitea, baina aldi berean ausarta eta erabakigarria izatea, Arrasateko herriak dituen behar errealak asetzeko. Hori dela eta, aurrekontu honek gizarte-inbertsioa jartzen du erdigunean: herriko kirol eta gizarte eskaintza erroitik eraldatzea, elkargune berde eta jasangarriak egitea, familiei laguntzea, funtsezko zerbitzu publikoak hobetzea, hezkuntzan, kulturen, kirolean eta ingurumenaren jasangarritasunean inbertitzea.

2026ko urtea lan handiko eta erronka ugari urtea izango da, baina ilusioz eta konpromisoz betea ere bai. Gobernu-talde honek etapa hau energia, erantzukizun eta erabakitasun osoz egingo du aurre, ezarritako helburuak betetzeko konbentzimendu osoarekin. Horregatik, udalbatza osoaren babes bilatzen dugu, denok batera, denona den Arrasate hobetzen joan behar dugulako. Arrasateko Udalak bere komunitatearen garapenaren motorra izan behar duela sinesten dugulako, eta gaur egiten dugun ahalegina biharko aukera, ongizate eta etorkizun hobe batean bihurtuko delako.

Aurrekontu honekin, aurrerapauso sendo bat ematen dugu nahi dugun herria eraikitze bidean: herri moderno, bidezko eta kohesionatu bat, non inbertitutako euro bakoitzak herritarren bizitzan hobekuntza zehatz bat ekarriko duen.

Kodea	BN25/00057	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DRR9.N.2bPA			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DRR9N.2bPA			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Partida batzuetara errekurtsu garrantzitsuak bideratu dira, izan ere, egitasmo batzuk, herri proiektuaren barruan ardatz izan dira eta jarraipen berezia behar dute. Ziklo baten itxiera ematen da eta berriaren hasiera. Horregatik, Iturripeko espazio berria egiteko 31.200.000€ bideratzen dira. Santa teresako obrei dagokionez, 433.458,05€ bideratzen dira, Iturbide aurrekaldea berrizatzeko 139.705€ eta San Juan Taldea berurbanitzatzeko 1.790.000€. Herriko ume eta gaztetxoek aisialdiaren garrantziaren jakitun Txikitxokoa handitzeko 146.000€ bideratuko dira.

Bestalde, gazteen eta adinekoen bizitzeko eta garatzeko ingurune eta espazioak ahalbidetzeko, inklusibotasunaren eta ahalduzaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Aldundiarekin elkarlanean herritarren ongizatea hobetzeko ditugun proiektuak aurrera eramateko 3.050.000€ bideratzen dira Arrasateko La Merced ikastetxea erosteko.

Udalak 2023an ekin zion Arrasaten dauden 11.000 ur kontagailutik gora aldatzeko lanari. Ur kontagailuen aldatzarekin, digitalizaziorantz urrats bat gehiago emateaz gain, ur kudeaketaren eraginkortasuna eta kudeaketa horri loturiko tramiteak erraztea lortzen ari da udala. Hau da, kontagailuen aldatzarekin errazagoa eta azkarragoa izango da, esaterako, ur kontaketak egitea, aberiak identifikatzea eta konpontzea, irakurketa akatsak ekiditea... Azken faseari aurre egiteko 683.000€ bideratzen dira.

Klima Larrialdiak eta energia trantsizioak datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatuko dute. Herri planaren zutabe garrantzitsua da klima larrialdiari aurre egitea, administrazio publikoak badu betebeharra eraldaketarekin aurrera egin eta paradigma berriaren baitan pausoak ematen jarraitzeko. Administrazio publiko gisa udalari ere herria jasangarriagoa egiteko egitasmoak gauzatzea dagokio. Besteak besteak, eta gainera, Arrasateko Mugikortasun Planari lotuta, herrian bizikleta bidez mugitzea bultzatzeko 80.000€ bideratuko dira bizikleten aparkamentu berriak egiteko.

Bidegorri sarearen inplementazioarekin jarraituz, berauek egokitzeko eta beharrezko seinalizazio bertikal eta mugaketa pintaketak egiteko 300.000€ bideratzen dira.

Herritarren segurtasun eta ordena publikoa bermatzeko eta legez jarritako betebeharrekin bat, Udaltzaingoa suzko armez dotatzeko 85.000€ bideratuko dira eta arma horiek gordetzeko araudia jarraituz, Udaltzaingoarekin eraikinean egin behar diren moldaketak bideratzeko 215.000€ jarriko dira.

Udala behartuta dago Foru Fondoaren eboluzioaren aurreikuspenak eta likidazioak hurbiletik jarraitzera. 2025. urterako Foru Fondoaren aurreikuspena esperokoa baino baikorragoa izan da eta nahiz eta zuhurtziaz jokatzeko jarraituko dugun, udalaren finantza egoera oso osasuntsua da, une honetan.

Zorrari dagokionez, proiektu guzti hauek aurrera eramateko eta exekutatu ahal izateko mailegua eskatzea beharrezkoa da. Aurreikusten den mailegua 37.000.000 eurokoa da, nahiz eta, aurreikuspen bat bakarrik den. Kontuan izanik, Udalaren egoera ekonomiko finantzarioa, benetan eskatuko den maileguaren

Kodea	BN25/00057	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DRR9.N.2bPA		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DRR9N.2bPA		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025DPRE0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

zenbatekoa 30.000.000€ ingurukoa izatea espero da. Gipuzkoako Aldundiak duenez Udalaren finantza tutoretza, konpromiso sailari honen berri eman zaio.

Aurrekontuetan partida bideratu da bizikidetza lantzeko elkarrizketa politiko esparru segurua eraikitzeko, hau da, esparru bat sortzeko, aukera emango diguna bizikidetzarekin zerikusia duten gai konplexu eta delikatuengatik inguruan iritzia desberdinak edo kontrajarriak izendatzeko, udalerriak egun dituen beharrak, aukerak eta zailtasunak identifikatu eta egungo testuingurua eta udalean ordezkaritza politikoa duten alderdiek aurreko legealdian harturiko konpromisoak kontutan harturik, lan plangintza bat zehaztu eta garatzeko. Lan hori egiteko, 40.000 €ko partida bideratu da.

2026. urteko aurrekontuak jarraituko du herritarren ongizateari dagozkion helburuei lehentasuna ematen, eta apustu horren seinale da, aurrez aipatutako proiektuez gain aurrekontuak ongizate sailari eskaintzen dion zenbatekoa. Pertsonak dira lehentasuna eta lan egingo da gizarte kohesioa bermatzeko. Ildo horretatik, ezinbestekoa da laguntza eta programa sozialen mantentzea. Hemen kontu behar da 2025. ekitaldian martxan jarri dugun hautazkoa ez den bakardadearen aurkako programa, eta bere emaitzak jasota konpromezua hartzen dugu gai horretan lanean jarraitzeko, eta ahal den heinean, ditugun baliabideak bideratzeko.

Gizarte ongizateko aurrekonturik altuena bideratu da etxeko laguntza zerbitzura zein pobreziaren kontrako larrialdi planetarako, guztira 1.360.000 € bideratu da. Babesgabeke egoerei aurre egiteko zerbitzuaren aurrekontua 414.000 € izango da eta tutoretzapeko etxebizitzaren laguntza zerbitzurako partida 65.000 €koa.

Gazteei begirako apustuan ludoteka eta gaztetxoko zerbitzura 608.280€ bideratzen dira. Honi gehituta zerbitzuaren funtzionamendu zein garbiketa gastuak udalak gaztetxoko eta ludoteka zerbitzuetara bideratzen duen aurrekontua. Aisialdia betetzeko instalazioen ekipamendua berritzeko 50.000€ bideratzen dira. Gainera, udalak Txatxilipurdik gabon garai inguruan antolatzen duen Txikilandia egitasmoa laguntzen jarraituko du 17.000€ekin.

San Juan de Dios ospitalearekin elkarlanean droga-mendekotasuna ardatz duen programa bat egin zen eta orain jarraipena eman nahi zaio ekintza planarekin. Horregatik, EKKO proiektuarekin jarraitzeko 143.745€ko aurrekontua bideratu da.

Enpleguari dagokionez, enplegu duin bat lortzeko lehen pausua formakuntza egoki bat izatea izanik, enplegu formakuntzarako plan berri bat egin da eta 115.000€ bideratu dira eta bi programa aurrera eramateko burutzea nahi diren kontratazioak egiteko 186.000€.

Tokiko merkataritzak berebiziko garrantzia du eta izaten jarraitzen du. Sektoreak bizirik mantentzen ditu herriko kaleak, eta ehun ekonomikoaren parte da. Ildo horretan, partida batzuk jaso dira tokiko merkataritza sustatu eta, era berean, baseritarren azokari bultzada emateko. Herriko azokaren printzipioak dira bertakoa izatea (0 km) eta komunitatearentzat espazio, ingurugiro eta baserri munduaren mantentzea; herriko identitatea markatzen duten elementuak dira. Bertako produktuak merkaturatzeko eta kontsumoa

Kodea	BN25/00057	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DRR9.N.2bPA			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DRR9N.2bPA			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

sustatzeko elikadura mahaia jarri da martxan (19.000€) eta komertzi aktibitatea, bertako produktuen azoka eta merkataritza kanpainak bideratzeko 75.000€ jarri dira.

Ezinbestekotzat jotzen da merkataritza alorreko eragileekin elkarlanean aritzea, elkarlanaz baliaturik helburua da amankomunean jardutea. Horregatik herriko merkatarien elkartearekin elkarlanean hitzarmena mantentzeko 31.000€ aurreikusi dira.

Mantendu egiten dira enpresa berriak sortzen laguntzeko fondoa (30.000 €) eta dirulaguntzarik handiena Debagoieneko Mankomunitateko enplegu sailari egiten zaio 133.552,38€koa. Mondragon City Challenge egitasmoarekin jarraitzeko 10.000€ aurreikusi dira. langabeen formakuntza gastuetarako laguntza programa (15.000 €). Bestalde, langabeak kontratatzekeo laguntza 50.000 euroan ezarri da aurreko urteetako eboluzioari erreparatuta.

Hezkuntzan eragitea garrantzitsua da, formakuntzarako eta hezkuntza funtzionamendua bermatzeko 177.000€ko laguntzak aurreikusi dira.

Arrasate herriak euskaraz bizi nahi du eta azken 30 urteotan, euskararen normalizazioan, aurrerapauso handiak eman ditu. Ahalegin handia egin da, esate baterako, eskola zein euskaltegietan belaunaldi euskaldunak gizarteratzen. Eta ahalegin handia egin da zenbait alorretan ere, besteak beste, merkataritzan, zerbitzuetan, herri komunikabideetan, enpresetan eta udal administrazioan. Hainbat mugimendu aitzindari izan dira, bai komunikabide arloan, bai herri aktibazioan.

Euskara zerbitzuaren helburu nagusia da egin beharreko ahaleginen plangintza egitea, koordinatzea, sustatzea eta gauzatzea, gizartean eta administrazioan euskararen erabilera normalizatu dadin. Horretarako, gidalerro nagusi bi ditu: udal barrurako erabilera plana, plan nagusia udalean lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza izateko eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), helburu nagusia baita arrasatearrek edozein esparrutan aukera izatea euskara gehiagotan erabiltzeko. Erronka nagusia da jakitetik erabiltzera pasatzea, eta ekintzen planifikaziorako kontuan hartzen dira zerbitzutik egiten diren neurketak (kale neurketak, kirol entrenamenduen neurketak...). Erabilera indartzeko, udalak bat egin izan du eta bat egiten jarraitzen du Euskaraldiarekin.

Euskararen eragileekin batera, euskal hedabideak diruz laguntzen jarraituko dugu, hala nola Goiena prentsa eta telebistarako, 183.000 euroko partida bat bideratu da. Aldiz, Mondraberri aldizkari digitalari 34.000 euroko partida bat gorde zaio, eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearekin sinatutako hitzarmenari bide emateko, 44.345 euroko partida bat gauzatu da. Euskarako dirulaguntzen partida 94.374,00 euroekin hornitu da.

Kulturari dagokionez, Kultureteko aire instalazio berria egitea aurreikusten da eta klimatizazioaren gastuari aurre egiteko 100.000€ bideratu dira. Dirulaguntzei dagokionez, aipamen berezia merezi du Arrasate Musikal elkartearekin egiten dugun hitzarmenak. Horretarako, 325.000€ aurreikusi dira. Bestalde, kulturako diru laguntzei dagokionez, urtero sinatzen diren hitzarmenak sinatzea aurreikusten da kopuru bera mantenduz eta lehia bidezko deialdia egiteko 40.000€ko partida bat jarri da.

Kodea	BN25/00057	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DRR9.N.2bPA			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DRR9N.2bPA			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Kulturolaren egoitza berriak erantzun dio Udal Euskaltegiak behar duen lokal egoki baten eskariari, Euskal Kultura ardatz duten beste eragile batzuekin batera. Asmoa izan da euskaltegia uztartzea gainontzeko elkarte zein eragileekin, eta ahalbideratzea euskara ikastera datorren pertsonak aukera izatea euskal kultura ezagutzeko, euskal dantzak, bertsolaritza, trikitixa eta abar. Euskaltegi funtzionamendu, garbiketa eta ekipamendu gastuetarako 34.000€ bideratu dira.

Jaietako eta kultur ekintzei dagokienez, Udalak 785.000€ bideratuko ditu jaiak zein kultur ekintza ezberdinak ospatzeko: auzoetako jaiak ospatu ahal izateko diru partida mantendu egin da, baina dirulaguntzen araudia errespetatuz, bakoitzaren partida aurreikusi da. Ildo honetan, aipamen berezia merezi du, dirulaguntzen ordenantzaren aldaketak. Ordenantza egungo Arrasateko Udaleko errealitatera egokitu da eta erabileran nabaritu diren akatsak konpondu dira. Kontuan izan behar da, ordenantzaren azken onarpena 2004 ekitaldian burutu zela.

Mondra & Roll jaialdia aurrera eramateko edo Arrasate Blues jaialdia aurrera eramateko partidak (25.000€ eta 30.000€ hurrenez-hurren).

Helburu nagusia da zerbitzuen eskaintza izatea askotarikoa eta kalitatekoa, eta, horretarako, ezinbestekoa da kasu bakoitzean lankidetzan aritzea herritarrekin, erakundeekin eta eragileekin. Jasotzen diren jarduera guztiak garrantzitsutzat jotzen dira, eta, horregatik, Herri proiektuaren parte dira. Hala ere, jarduera batzuek ahalegin handiagoa eskatzen dute, bai plangintzan, bai baliabideetan. Ildo horretatik, Arrasate udalerrri aktiboa bilakatzeko ahalegina aipatu behar da. Izan kirola, izan ariketa, izan jardura fisikoa, hirurak izan behar dira herritarren eskura egon beharreko aukerak, Arrasate izan dadin pertsona aktiboen bizileku aproposa.

Idea hori landu zen 2017an, Arrasateko Kirolaren Plan Estrategikoan, eragile askoren parte hartzearekin egindakoa, eta hainbat proposamen zehaztu zen, hala nola kirol eremuak auzoetara irekitzea, aire zabalean ariketa fisikoa sustatzea, kirol elkartegintzaren lankidetzak egiturak dinamizatzea, kirol ekitaldi garrantzitsuak antolatzea, kirol turismoa bultzatzea eta kiroldegi berri bat eraikitzea. 2021 urtean aurrera eraman zen Arrasateko kirol azpiegituren mapa diseinatu eta zehaztea herritarrekin, kirol instalakuntzen erabiltzaileekin zein kirol klubekin. Lan hori amaitu egin da eta emaitza izan da hurrengo belaunaldietarako Kirol Instalakuntzen mapa bat.

Horrela, Iturripe Kiroldegi berriaren instalakuntza definitituta exekuzioa dator 2026 ekitaldian. Nahiz eta, exekuzioa 2028 ekitaldian amaitzea aurreikusten den, finantzazioan bete beharreko baldintza juridiko-ekonomikoak kontuan hartuz, 2026 ekitaldian aurreikusten da zenbateko osoa.

Arrasateko Berdintasun sailak helburu eta jardura asko egin baditu ere, udalak premia zuen indarkeria matxistaren prebentzio plan berria egiteko. 30 hilabetetan egitea aurreikusten da eta 2026ko ekitaldian 57.000€ aurreikusi dira kontrataziorik eratorritako gastuei aurre egiteko. Gainera, biolentzia matxistaren kontrako plana aurrera eramateko 38.000€ aurreikusi dira. Nabarmendu behar da, azken urteetan berdintasuna jorratzeko ekintza ugari egin direla Arrasaten eta berauek egiten jarraitzeko 120.000€ko diru partida bat mantentzea beharrezkotzat jo da.

Kodea	BN25/00057	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DRR9.N.2bPA		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DRR9N.2bPA		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Kontuhartzailletza ■

Esp. kodea: 2025DPRE0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Alkateak

Kodea	BN25/00057	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DRR9.N.2bPA			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DRR9N.2bPA			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				